

HAUTAKETA-PROZESUA: OBRA HIDRAULIKOEN TEKNIKARIA 2020 **1 B FASEA: GARAPEN-PROBA**

2 ordu eta erdi dituzu proba hau egiteko.

Garatu beharreko atalak ebaluatzeko ponderazioa honako hau da:

- I. atala: % 45
- II. atala: % 25
- III. atala: % 15
- IV. atala: % 15

I - KASU PRAKTIKOA: UHOLDEEI AURRE EGITEKO OBRAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, erkidego barruko arro batean kokatutako XXXX hirigunea uholdeetatik babesteko obrak Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (UAKP) daude jasota, 2015-2021 epealdian URA Uraren Euskal Agentziak gauzatu beharreko egiturazko neurri gisa, hain zuzen.

Hiriguneko uretan gorako arroaren azalera 25 km²-koa da

Ibilguaren hiri barruko tartean hiru sekzio mota daude:

A tartea: Harri-lubeta babesleko sekzio laukizuzena, oinarrian 20 metro zabal dena, 3,60 m altu eta % 0,5eko malda duena.

B tartea: Landarediaz betetako sekzio trapezoidala, oinarrian 18 metro zabal dena, 4 m altu 2H:1V ezpondekin eta % 0,5eko malda duena.

C tartea: Harri-lubeta babesleko sekzio laukizuzena, oinarrian 14 metro zabal dena eta 2,50 m altu.

Erantsita doa BOE-A-2013-4209-ren 12. eranskina, Iparraldeko III. Plan Hidrologikoaren abakoa jasotzen duena.

Kasu praktiko honetan, hurrengo atalak garatu beharko dituzu:

- A. Kalkulatu, behar bezala justifikatuta, zein tartetan egon daitezkeen gainezkatzeak eta hirigunean uholdeak eragin.
- B. Aurreko datuak kontuan hartuta, eremuan uholde-arriskua murrizteko, zehaztu tartean edo tarteetan beharrezkoa den sekzio mota. Justifikatu egin behar dira baldintzak eta diseinu-irizpideak, betiere Plan Hidrologikoa, Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana eta aplikatzekoa den gainerako araudia kontuan hartuta.
- C. Erantzun labur-labur nola jardun beharko litzatekeen hipotesi hauetako bakoitzean:
 - i. Egin beharreko obrak egiten diren bitartean (milioi bat euroko aurrekontuarekin esleitu dira), proiektuan aurreikusitakoa ez den beste euste-sistema bat erabili behar da, proiektua idazterakoan antzeman ez ziren betegarri batzuk agertu direlako. Horren ondorioz, beste

partida bat sortu da, 50.000 euroko prezio berriak dituena. Kontratazio-araudia kontuan hartuta, zer izapide egin behar da?

- ii. Aztertutako tartean, zubi bat dago. Daukan sekzioa ez da nahikoa eta ordeztu egin behar da. Zer baldintza bete behar ditu zubi berriak?
- iii. KBE baten barruan dago obrak egingo diren tartea eta interes komunitarioko habitat batean eragin garrantzitsua izango duela aurreikusten da. Proiektuak zer ingurumen-izapide behar ditu? Azaldu prozedura labur-labur.
- iv. Eremu horretan egin daitezkeen hiru bioingeniari-teknika deskribatu labur-labur.
- v. Ibaiertzak landareztatu beharko direla uste denez, zein da landaketak egiteko sasoirik egokiena? Adierazi ibaiertzetako berezko hiru zuhaitz-espezie.

II - KASU PRAKTIKOA: SANEAMENDUA

X arroaren saneamendu eta arazketarako sistema garatu nahi da. Bi ibai dira bat egiten dutenak arro horretan. 1. ibaiaren goi-ibarrean dago A udalerrria, 2. ibaiaren goi-ibarrean B udalerrria, eta bi ibaiak bat egiten duten tokian P poligonoa; uretan gora dago C udalerrria. Ibaiaren bi ertzetan biztanleria dago. Proposatu aztertu beharreko alternatibak arroaren saneamendu eta arazketarako sisteman (kolektoreak eta arazketa ezarri). Proposatu, gutxienez, hiru alternatiba. Proposamen bakoitzaren alde onak eta txarrak eraikitzearen ikuspuntutik, ikuspuntu ekonomikotik (inbertsioa, mantentzea eta ustiapena), ingurumenaren eta kudeaketaren ikuspuntutik.

III – KASU PRAKTIKOA: PRESEN ETA URTEGIEN SEGURTASUNA

Oka ibaiaren arroan, EDATEKO URAK Mankomunitateak presa bat dauka eremuko hainbat herriren hornidurarako.

Material solteko grabitate-presak bat da, jabari publiko hidraulikoan kokatua, 8 metroko altuera dauka eta 80.000 m³-ko gaitasuna.

Urtegia apurtuz gero, uretan behera dauden hamar etxebizitza ingururi eta enpresa kimiko bati eragingo lioke.

Adierazitako datuak kontuan hartuta, presaren sailkapena kalkulatu eta presen inguruko segurtasunari buruzko araudiarekin bat etorrita, azaldu labur-labur EDATEKO URAK Mankomunitatearen betebeharrak eta zer administrazioen duen eskumena hasten diren izapideak ebazteko.

IV - GALDERAK

Erantzun hurrengo galderei modu labur eta sintetikoan, denak ere Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) esparruari dagokionez:

- 1- Uholde-arriskuen inguruko araudiaren barruan, zer da lehentasunezko fluxu-eremua?
- 2- UAHE bateko arriskuen prebentziorako, egiturazkoak ez diren zer neurrik osatzen dituzte egiturazko neurriak?
- 3- Zer da Demarkazio Hidrografiko bat eta zeintzuk dira EAEko lurraldeari eragiten dioten demarkazio hidrografikoak?
- 4- Zer Administrazio Hidraulikok emango du Oria ibaiaren estuariora isurtzeko baimena?
- 5- Zeintzuk dira gauzatu beharreko egiturazko neurriak definitzen dituzten plangintza hidrologikoko dokumentuak?
- 6- Uholde-arriskuko gunean etxebizitza bat eraikitzeko baimena emateko, nork dauka eskumena?
- 7- Uholdeei aurre egiteko babes-obrak, zein errepikatze-denborarako dimentsionatu behar dira?